

2026KO AITAREN EGUNeko ZOZKETAREN OINARRIAK

Lehiaketa hau Mendibil Merkataritza Guneko jabeen erkidegoak antolatzen du [IFK: H20818944; ondorio hauetarako helbidea: Arizmendi Almirantea kalea 9, 20302 Irun], eta parte hartzaileek arau hauek ulertu eta onartzen dituzte, eta, horrela, men egiten diete, baldintza orokor hauetan.

Sustapen hau Internet bidez egingo da, Mendibil Merkataritza Guneak Instagrameko sare sozialean duen orrian: https://www.instagram.com/mendibil_cc

Sustapen honetan parte hartzea doakoa da: ez da produkturik erosi behar, ez kuotarik edo inongo zenbatekorik ordaindu behar.

PARTE HARTZEKO DATA

2026ko martxoaren 10etik 17ra bitartean parte hartu ahal izango da, biak barne. Martxoaren 17an, 12:00etan itxiko da parte hartzeko epea.

1. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

18 urtetik gorako pertsonak har dezakete parte.

Sustapen honetan parte hartuz gero, sustapenaren oinarri guztiak onartzen dira.

Parte-hartzaileak baztertzea: Edozein parte-hartzaile lehiaketatik kanpo geratuko da, baldin eta Mendibil Merkataritza Guneko jabe-erkidegoak uste badu modu irregularrean edo fede txarrez ari dela edo lehiaketaren funtzionamendu egokia eragozten duela. Ez da onartuko profil faltsuen erabilera, ez profilen iruzurrezko erabilera.

2. PARTE HARTZEKO DINAMIKA

Lehiaketa honetan parte hartzeko, pauso hauek eman behar dira:

- @mendibil_cc @alexcutzz03 eta @saerrirun kontuak jarraitu Instagramen.
- 2026ko martxoaren 10etik aurrera, lehiaketaren dinamika azaltzen duen argitalpenari “atsegin dut” eman.
- Argitalpenean pertsona bat aipatu. Zenbat eta pertsona gehiago aipatu, orduan eta aukera gehiago irabazteko.

3. SARIA:

- Eite aldaketa, ALEX LUX'STUDIO ileapaindegiaren eskutik. Ilea eta bizarra moztea, 30 €.
- SAERR dendako larruzko diru-zorroa.
- Saria ezin izango da inolaz ere eskudiruagatik trukatu.
- Irabazlea aurrez aurre bertaratu beharko da, NANarekin.

4. SARIAK BANATZEKO MEKANIKA

Zozketa egingo da parte hartzaile guztien artean, AppSorteos aplikazioaren bitartez.

Antolatzaileak martxoaren 17an jarriko dira harremanetan irabazlearekin, Instagrameko mezu baten bidez (DM), parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko eta saria onartzen duela adieraz dezan.

Harremanetan jartzeko eta datuak egiaztatzeko prozesua amaitu ondoren, irabazleak sariak jasotzeko egun bat adostu beharko du. Argazkiak atera eta bideoak grabatu ahal izango dira, Mendibil Merkataritza Guneako sare sozialetara igotzeko.

Lehiaketaren oinarrien klausulak

Zozketa honetan parte hartuz gero, sustapenaren oinarri guztiak onartuko dira; eta, horrekin batera, Mendibil Merkataritza Guneari baimena emango zaio parte-hartzaile guztien izenak eta irudiak erabiltzeko, baldin eta Mendibil Merkataritza Guneak horiek behar baditu publizitaterako. Era berean, irabazleek baimena emango diote Mendibil Merkataritza Guneari haien izenak edota irudiak argitaratzeko edozein publizitate-baliabidetan.

Eman dizkiguzun datu pertsonalei dagokienez, zera jakinarazten dizugu:

Tratamenduaren arduraduna: Zure datuak Mendibil Merkataritza Guneako jabe-erkidegoak tratatuko ditu (IFK: H-20818944).

Helburuak eta legitimazioa: Datuak tratatzearen xedea "2026ko aitaren eguna" lehiaketan parte hartzea da.

Epea: Zure datuak behar beste denboraz tratatuko dira, datuak biltzeko arrazoi izan ziren helburu zehatzak betetzeko, haien erabileraren garrantzia galdu arte edo, nolana ere, ezereztu arte, titularrak dagozkion eskubideak egikaritu baititzake.

Hartzaileak: Zure datuak ez zaizkie emango hirugarrenei, legezko betebeharririk ez bada.

Eskubideak. Baldin eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta/edo eramangarritasunerako eskubideak erabili nahi badituzu edo zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, zure nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren kopia bat erantsi eta idatzi Arizmendi almirantea kalea 9, 20302 Irun (Gipuzkoa) helbidera edo posta elektronikoa honetara: mendibil@centrocomercialmendibil.com